

“EROSI ZARAUTZEN BONUAK 2020” PROGRAMAREN ARAUDIA

1. "Erosi Zarautzen bonuak 2020" programa Murkil Zarauzko merkatarien elkarteak kudeatzen du, Bulego Teknikoaren laguntzarekin eta Zarauzko Udalaren finantzaketarekin eta ikuskapenarekin.
2. Zarautzen establezimenduak dituzten merkataritza eta zerbitzu enpresentzat da programa hau (ostalaritza eta antzekoak ez dira hemen sartuko), baldin eta Alarma Estatuaren 463/2020 Errege Dekretua indarrean sartzearen ondorioz, 2020ko martxoaren 16tik maiatzaren 3ra jarduera geldituta izan badute, edo aurreko urteko epe berdinarekin alderatuta, salmentak %40 baino gehiago murriztu badira.
3. Programa bi zatitan banatuko da: bata, ekainetik uztaileira, eta, bestea, irailetik urrira.
4. 8.500 bonu banatuko dira guztira: 4.000 lehenengo aldian eta 4.500 bigarrean (edo baten bat gehiago, kanpainari atxikitako gastuen arabera)
5. Enpresa bakoitzarentzako bonu kopurua kanpainan parte hartuko duten enpresa kopuruak baldintzatuko du. Horrela, bonu kopurua zati enpresa kopurua egingo da, enpresa guztiek bonu kopuru bera izan dezaten; modu honetara, ekitatea lortuko da banaketan, eta, aldi berean, beharrezkoak ez diren ilarak eta pertsona pilaketak saihestuko dira.
6. Saltoki bat baino gehiago dituzten enpresen kasuan, gehienez ere 2 establezimenduk eskuratu ahal izango dituzte bonu horiek, baldin eta Ogasun Higiezinaren gaineko Zerga (OHZ) bakoitzak berea ordaintzen badu.
7. Bonuek 30 euroko balioa izango dute; horietatik 10 euro Zarauzko Udalak ordainduko ditu, eta gainerako 20 euroak bezeroak. Zenbateko eta portzentai hauek aldaketak jasan ditzazkete programaren bigarren zatian (iraila-urria)
8. Programari atxikitzeko eskaera behin bakarrik egingo da, eta bi aldietarako balioko du. Ez da eskaerarik onartuko epe horretatik kanpo, Udalak eta Elkarteak bigarren aldiari begira (iraila-urria) beste atxikitze-aldi bat irekitzeko erabakia hartzen ez badute behintzat.
9. Programari atxikitzeko epea ekainaren 15etik 19ra bitartean izango da.
10. Merkatariek, programara atxikitzeko, horretarako sortutako agiria bete eta sinatu behar dute. Agiria Merkataritzako Bulego Teknikoari helarazi beharko zaio, aurrez aurre (SALEGI kalea 14) edo posta elektronikoz (gatc@zarautz.eus).
11. Kanpainaren lehen zatian epe jakin bat dago bezeroek "Erosi Zarautzen Bonuak 2020" erabil ditzaten, 2020ko ekainaren 29tik uztailearen 12ra bitartean, hain zuzen ere.
12. Kanpainaren bigarren zatian ere epe zehatza izango da bezeroek "Erosi Zarautzen Bonuak 2020" erabili izan ditzaten, eta aldeztatik jakinaraziko da.
13. Lehenengo aldirako, enpresa parte hartzaileek ekainaren 24tik aurrera jaso beharko dituzte bonuak Merkataritzako Bulego Teknikoan (Zarautz Lur – SALEGI kalea 14), 09:30etik 15:00etara.

14. Lehenengo aldirako, ez dira onartuko dataz kanpo egindako salmenta hobaridunak (ekainaren 29tik uztailaren 12ra).
15. Enpresa parte-hartzaileek edukiko dituzte bonuak bezeroen eskura.
16. Parte hartzen duten enpresek ezin izango dituzte bonuak gorde, ezta bezeroen batentzat jaso ere.
17. Kontsumitzaileak adinez nagusia izan beharko du eta Euskal Autonomia Erkidegoko udalerrri batean bizi behar du.
18. Enpresak bonu guztiak erabili ondoren, Merkataritzako Bulego Teknikora eraman beharko ditu "Erosi Zarautzen bonuak 2020" jatorrizko txartelak, salmenta-txartel bakoitzaren kopiarekin grapatuta.
19. Fakturan edo salmenta-txartelean argi eta garbi ikusi beharko da salerosketa-eragiketaren data.
20. Lehenengo aldira erabilitako bonuak 2020ko abuztuaren 31 baino lehen entregatu beharko dira, ordaintzeko.
21. Txeke izendunaren bidez ordainduko da, enpresaren izenean.
22. Enpresa parte-hartzaileak kanpainaren ezaugarrien berri eman beharko die kontsumitzaileei.
23. Kartela edo beste sustapen-elementuren bat egongo balitz, erakusleihan edo erraz ikus daitekeen lekuren batean (hala nola, salmahaian), jarri beharko luke edo hedapen egokia eman
24. Saltokiak gehenez ere bonu bakarra onartuko du salmenta tiket eta kontsumitzaile bakoitzeko, eta salmentak 30 eurotik gorakoa izan beharko du. Zenbateko honek aldaketak jasan ditzazke programaren bigarren aldira (iraila-urria) araudi honetako 7. Artikulua kontuan izanik
25. Enpresak eskatutako informazio eta dokumentazio guztia eman beharko die Zarauzko Udalari eta Merkataritzako Bulego Teknikoari, kanpainaren berezko baldintzak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.
26. Atxikitze-agiriaren sinatzaileak baimena ematen die Zarauzko Udalari, Murkili eta Merkataritzako Bulego Teknikoari, "Erosi Zarautzen Bonuak 2020" programan parte hartzeko emandako datuak erabil ditzaten, programa hori gauzatzeko eta enpresarentzat garrantzitsua den beste edozein informazio jakinarazteko (laguntzak, kanpainak, formakuntza...).
27. Atxikipen-agiriaren sinatzaileak adierazten du emandako datu guztiak egiazkoak direla. Beraz, saltokiak emandako datuak errealitatearekin bat ez badatoz, Zarauzko Udalak beretzat gordetzen du egokitzen jotzen dituen jarduerak egiteko eskubidea, baita saltokiari kanpainan baja ematekoa ere.